...eta kitto!
857 zkia.
2013-IX-6

# Turismoa gero eta biziago




matrikula zabalik

2013/14 EUSKARA IKASTAROAK

*EUSKALDUNTZE OROKORRA*
(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

*XEDE BEREZIKO IKASTAROAK*
(aurrez aurrekoa)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

aek

Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.org

# KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4
279 Postakutxa
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334



*Edozein ospakizunetarako aukera*

















www.kantabriajatetxea.com

**EZKONTZAK**
**BATAIOAK**
**JAUNARTZEAK**

ARRATEKO SANTUTE-GIAREN ondoan aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak, zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak, karta, enpresa bazkariak…



RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA

# ASTEAN ESANAK

"Urteak hartzeko komenigarria da ura edatea, hidratatzeko batez ere. Adinarekin dastamen-papilak zentzumena galtzen dute eta nagusiek ez dira egarri eta ez dute edateko beharrik sentitzen"

(Izaskun Iturrioz, familia-sendagilea)

"Albert Camus idazleak oso argi bereizten zituen erresistentzia eta terrorismoa. Gatazkarekin zerikusirik ez duten zibilak erortzen direnean, terrorismoaz ari gara hizketan"

(Idoia Estornes, idazlea)

"Aditu gehienen ustez, Irak, Libia eta Siria ziren erasoen aurretik herrialde arabiarretan aurreratuenak -osasun eta hezkuntza arloan batez ere-, laikoenak eta aberastasuna ondoen banatuta zutenak. Hirurak kaosera eraman ditu mendebaldeak, azken biak ezkerraren eta indar `aurrerakoien´ baimenarekin"

(Juan Martin Elexpuru, idazlea)

"Langile batek urtean batez beste 820 euro gastatzen ditu egunero etxetik lantokira lau kilometro egin beharrez gero, eta soilik 141 euro autobusean edo tranbian joanda"

(Ana Oregi, Ingurumen sailburua)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**JIRA.-** Buelta. *"Ohe-lagun zatarra euki dot bart: ostikoka jira bakotxian"*. Ingurua. Gaztelerazko ***'contorno'***, ***'perímetro'***. *"Soluaren jiria, uste genduan baiño luziagua agertu da, behin neurtu ezkerik"*. Egoera, ganora. *"Hau ez da etxeko jiria..., hori al da ba etxeko gizonaren ganoria ta errespetua?"*. Gestioa, errekadua. *"Alperrikua gaur atzera ta aurrera egin doten jiria"*.
**JIRAU.-** Lortu. *"Zela edo hala, jiratzen genduan ez hiltzeko beste"*.
**JIRATZAILLE.-** Bizimodua ataratzeko bideak bilatzen azkarra, bizia. *"Ha besteko jiratzaillerik ez dot ezagutu bizixan"*.

# eskutitzak

### ARDANTZAKO GELTOKIKO ERROTULAZIOA ARGITZEKO ESKAERA

Orain dela pare bat hilabete, Euskotrenek Bilbo eta Eibar bitartean egiten duen ibilbidearen zati batean, Ekuadorreko emakume batekin bat egin nuen eta oso gertakari latza ikusi nuen. Emakumea lehenengoz zetorren hona, lan kontuak zirela-eta, eta galduta zegoela ikusita laguntzen ahalegindu nintzen. Hitzordu zehatza zuen eta nik Eibarrera ailegatu zela eta jaitsi behar zuela esatean, gero nora jo behar zuen azalduko niola azaltzean ikaratuta, larrituta, erabat kezkatuta eta zer egin ez zekiela, jaitsi ala ez jaitsi zalantzan geratu zen. Geltokian berak ez zuen Eibar irakurtzen, Ardantza baizik. Gu Ardantza eta Eibar elkarrekin identifikatzeko horren ohituta egotean besteei adi egoteko, biak gauza bera direla esatea bururatu ere ez zaigu egiten.

Gertatutakoak orain pare bat urte bizi izan nuen antzerako egoera ekarri zidan gogora: ia ezagutzen ez nuen kolonbiar bat, Hegoamerikara bueltatu aurretik hemendik zebilela aprobetxatuta, nirekin bazkaltzera etortzekoa zen. Errefuxiatu politikoa zen eta arazo ekonomikoak zein bestelako beste arazo batzuk zituen. Nahiz eta nik Ardantzan jaitsi behar zuela azaldu, geltokian Eibar ez ikustean nahastu eta Elgoibarreraino joan zen. Bere bidaiaren helburuari jarraitu eta, pentsatuko moduan nirekin bazkaltzera etortzeko taxia hartzeko, taxia nik ordainduko nuela behin eta berriz azaldu nion arren, horren urduri ipini zen zuzenean Bilbora bueltatzea erabaki zuela.

Sarritan inork gertatutakoaren berri izan barik gertatzen diren horrelako egoerak saihesteko nire proposamena honakoa da: Euskotreni Eibar eta Ardantza, biak batera (gidoi batek lotuta, adibidez) duen errotulazio berria ipintzeko eskatzea.

**ANDER GARCIA**

### HABE EUSKALTEGIARI ESKERRAK

Azken urteetan ordu mordoa igaro ditut euskara ikasten, HABE euskaltegian hain zuzen ere, eta hango irakasleei eskerrak eman nahi dizkiet, zeren eta euskara ikasten egon naizen bitartean etxean bezala sentiarazi naute.

Bigarren perfilean GAI izatea lortu dut eta hori guztia zuen ahaleginari eta emandako animoei esker izan da. Hori dela eta, har ezazue nere besarkada haundia eta bene-benetan eskerrik asko denagatik, aio.

**ARANTZA QUINTANO**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Debegesa
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.150 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*



*Munilla apezpikua lehelengo aldiz izan zan Azittaiñen aurreko domekan.*

## Parroko barrixa Azittaiñen eta Estaziñuan

**Aurreko domekan, Jose Ignazio Munilla Donostiako gotzaiak** gidatutako mezan, Jon Aristondo karmelita izendatu eben Azittaingo Jasokunderako eta Estaziñoko San Agustin elizako parroko. Azittaingo eliztarrendako egun berezixa izan zan eta, horregaittik, talde politta batu zan mezetan, parroko izendatu barrixari ongietorrixa emotera eta, bide batez, Azittaingo eliza lehelengoz bisitau eban gotzai jaunari harrera egittera.



## Ikasliendako diru-laguntzak

**Urtero legez, udalak Eibarko ikaslieri diru-laguntzak** emongo detsez, ikasturte hasierian egin biharreko gastuekin laguntzeko asmuarekin. Umeak Eskolara eta Diru-Laguntzak ikaslieri kanpaiñen barruan ikasle bakotxeko banatuko diran 60'10 euruak jaso ahal izateko eskaeriak Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegora (Untzaga Plaza, 7 behea 3; Artola jatetxe aldamenian) eruan biharko dira (epia urriaren 31n amaittuko da). Eskaeria zelan egiñ eta beste edozein zalantza argitzeko, barriz, Pegoran galdetu.



*Errebalgo orubiak emon dau, bai, saltsia gure artian. Noizbaitten izango dau amaieria.*

## Alkatia inputau dabe Errebalgo orubearen auzixan

**Alkatiaz gaiñ, Udaleko idazkarixa, Hirigintza aholkulari juridikua eta Udal arkitektua** inputau dittu Gipuzkoako Auzitegixak. Miguel de los Toyos alkatiak Errebalgo ordubearen auzixa itxitta zeguala esaneta gero, Auzitegi Probintzialak auzixa berraztertzia erabagi dau eta alkatia bera, Arantza Etxaniz, Iñaki Serrano eta Elena Juaristi deklaratzera deitzia. Aurrekuez gaiñ, Iñaki Arriola eta Jose Luis Valles be inputatzeko aukeria adierazi dau auzitegixak, uztaillaren 15ian kaleratutako autuan. Oiñ hiru urte hasi zan Errebalgo auzixa, Aralarrek denuntzia sartu zebanian. Autuan agertzen danez, Auzitegiko epailliak Eibarko Udalak SPV Eibar Boulevard-i 4,2 millioi eurotan zergaittik saldu zetsan orubia argittu bihar dabe inputatuak. De los Toyos alkatiak larritzat jotzen dau udal langillien zintzotasuna zalantzan jartzia eta Errebalgo orubiaren auzixaren inguruan marra gorrixak gaindittu dirala uste dau, prebarikaziño salaketak baztertu eta teknikarixen txosteneri jarraittu zetsala adierazitta. Horrez gaiñ, Aralarreko Mariasun Gartziak "barriro be gezurretan harrapatu" dabela esandakuari erantzunez, De los Toyosek holan diño: *"Errebalgo auzixan, erabagi finkua hartutako hirutan gure alde egin dabe; laugarrena geratzen da"*.

---

**SALVADOR MARZANA AMUATEGUIren**

3. URTEURRENA (2010-IX-7)



*Ez dugu gehiago zure hitzik entzungo,*
*baina bai makina bat aldiz zure esanak gogoratuko.*

*ZURE EMAZTEAK*



# Gaztelekua atzera be zabalik

**Udako oporrak amaittuta, Indianokua gaztelekuak** datorren asteko martitzenian atzera be atiak zabalduko dittu. Azken orduko aldaketarik egon ezian, aurreko ikasturteko egutegi eta ordutegixari jarraittuta zabalduko dabela emon dabe aditzera arduradunak: martitzenetik eguenera, 18.00etatik 20.00etara; barixakuetan, 16.30xetatik 21.00etara; zapatuetan, 17.00etatik 21.00etara; eta domeka eta jai egunetan, 17.00etatik 20.30xetara; astelehenetan itxitta egongo da. Bestalde, antolatzen diran jarduera eta bestelako guztien gaiñeko informaziñua nahi dabenak, gaztelekuaren blogian (eibarkogaztelekua.wordpress.com) topauko dau dana.

# Ordutegi aldaketia autobusetan

**Hillaren 1az geroztik neguko ordutegixa sartu da indarrian** Pesako autobusak eskintzen dittuen zerbitzu guztietan eta horreri segiduko detse 2014ko ekaiñaren 30ra arte. Linea bakotxaren ordutegi zihetzak ikusteko interneten www.pesa.net helbidera jo leike edo, bestela, 902 101 210 bezeruaren arretarako telefono zenbakira deittu.



*Neguko ordutegixa ekaiñaren 30a arte egongo da indarrian.*

## *autuan*

### INDALEZIO OJANGUREN

**Udalak, Klub Deportibuaren laguntasunarekin, Indalezio Ojanguren XXVI. Argazki Lehiaketarako deixa egin dau. Parte hartu nahi dabenak urrixaren 11ra arte eukiko dabe horretarako aukeria. Gehixen jota presentau leikiazen lanak hiru izango dira modalidade bakotxian (koloretan eta zuri-baltzian). Informaziño gehixago nahi dabenak Portalean galdetu leike (1. pisuan).**



### JSM BEKIA

**XI. Juan San Martin bekarako eskaeriak egitteko epia zabalik dago (urriak 11n itxiko da). Aurtengo ediziñorako aukeratutako ikerketa-esparrua kazetaritza da eta horretan ikertzeko bekia eskuratzen dabenak 9.000 euro jasoko dittu.**




**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**
Jardiñeta, 3
20600 Eibar

**2013/2014**
MATRIKULA OFIZIALA
**Irailaren 2tik 20ra**
ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA eta INGELESA

MATRIKULA EGITEKO:
**www.eoieuskadi.net**
ARGIBIDE GEHIAGO: **www.eoieibarheo.net**
**943.20.06.48**

# Asfaltauak eta parkiak konpontzen

**Azken urtiotako krisi ekonomikuak eraginda, udia aprobetxauta** egitten diran biharrak ez dira bereziki deigarrixak. Edozelan be, sasoi honetan jende gitxiago egoten dalaeta ahalik eta traba gitxien egitteko, herriko kale batzuk asfaltatzen jardun dabe azken astiotan: Tiburzio Anituatik Otaola hiribideraiño doian zatixa, Ubitxa kaliaren atzekaldia, Jardiñeta (10etik 12ra), San Juan (9tik 11ra), Errebal, Bittor Sarasketa (12tik 14ra) eta Barrena (8tik 38ra). Biharrak 250.000 euroko gastua euki dabe.


*Abuztuaren amaieran hasi dittue Txaltxa Zelaiko lanak.* SILBIA HERNANDEZ

Horrekin batera, abuztuaren amaiera aldian hasi dittue Txaltxa Zelaixan, epaitegi aldamenian estalitako parkia egitteko biharrak. Sasoi Eraikuntzak SL enpresiak 295.349 euroko aurrekontua eta sei hillebeteko epia eukiko dittu 410 bat metroko azaleria eukiko daben parkia egitteko. Bestalde, aste honetan bertan esan dabe Karmen kaleko parkia konpontzeko biharrak zeiñek egingo dittuan: lehiaketara 18 eskaeria aurkeztu zittuen eta, hórrek aztertu eta gero, biharrak Lurgoien enpresiak egittia erabagi dabe, 377.459 aurrekontuarekin (lizitaziñora etara eben aurrekontua baiño %15 gitxiago).

## asteko datua

**18,000**

**euro, iazko kopuru bera emongo detse udalak herriko lau jubilau etxieri. Bazkide kopuruari begiratuta banatuko dabe partidia: Untzagakuak 6.300 euro, Ipuruakuak 4.860, Beheko Tokiak 4.770 eta Urkikuak 2.070 euro.**




# Gaurtik aurrera akuarelak ikusgai Untzagan

**Gaur arratsaldian, 19.15etan zabaldduko dabe Sara Beiztegiren** akuarela taillarrian parte hartu ebenen lanekin erakusketia Untzagako jubilau etxian. Hillaren 22ra arte ikusgai egongo dan erakusketia ikusi nahi dabenak horretarako aukeria eukiko dau ordutegi honetan: astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.00etara eta zapatu eta jai egunetan 12.00xetatik 14.00etara.



# Iraillerako ordutegixak

**Herriko hainbat instalaziño ordutegi berezixan zabaldduko** dittue iraillian. Hillaren 30era arte Portalea kultur etxia 09.00xetatik 21.30xetara zabaldduko dabe astelehenetik barixakura; Juan San Martin liburutegixa, barriz, 09.00etatik 13.30xetara eta 16.00etatik 20.30xetara (astelehenetik barixakura); erakusketa aretua, 18.30xetatik 20.30xetara (martitzenetik barixakura); eta Armagintzaren Museua 16.00etatik 20.00etara, eguaztenetik barixakura.

Pegora herrittarren zerbitzurako bulleguak hillaren 15era arte bakarrik goizez zabaldduko dabe, 08.30xetatik 13.30xetara. Hillaren 16tik 30era, barriz, astelehenetik eguenera goizez 08.30xetatik 13.30xetara zabaldduko dabe eta arratsaldez 15.30xetatik 19.00etara eta barixakuetan bakarrik goizez, 08.30xetatik 13.30xetara. Bestalde, 010 / 943708400 telefonora deitzeko orduak hónetxek dira: hillaren 15era arte, astelehenetik eguenera 08.00etatik 14.00etara; eta 16tik 30era arte, astelehenetik eguenera 08.00-etatik 19.00etara eta barixakuetan 08.00-etatik 15.30xetara.

ZURICH
Lejardi S.L Aseguru Agentzia
Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar

RPS 04/02

# IRAZABAL
## clínica dental

• **Irribarreetan adituak**

ESPEZIALITATE GUZTIAK

**Aseguruekin**
IMQ, ADESLAS, SANTA LUCIA, FRATERNIDAD...
**egiten dugu lan**
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

**ORDUTEGIA:**
**Astelehenetik ostiralera: 08.00-22.00 / Larunbatetan: 10.00-14.00**

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA
## BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu*

Kalitateko Euskal Tomatea
Tomate de Calidad del País Vasco

EUSKAL BASERRI

Gernikako Piperra

Orain Eibarko BM-n ere bagaude

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

*Eskualdeko eskintza turistikua zabaltzeko ahalegiñari jarraittuta, julixuan presentau eben Debabarrenerako preparau dittuen jarduerarik barrixenak. Tradizio Bizia izenburuko progamaren barruan, gusto eta interes ezbardiñeri erantzuna emoteko moduko bost esperientzia gehittu detse lehenagotik eguan eskintza turistikuari. Ekimena Debegesa garapen agentziak, Debemen Debabarreneko landa garapen alkartiak, Geobidaiak bidaia-agentziak eta eskualdeko hainbat ostalari eta enpresarik sortu dabe alkarlanian eta eskindutako esperientzia bakotxa gai zihetz baten inguruan antolatu dabe, euskal sukaldaritza, herri kirolak, euskal pelota, sagardaua eta alkarte gastronomikuak bertatik bertara eta oso modu berezixan ezagutzeko plan ezin erakargarrixaguak sortuta.*



# Turismua bizitzeko esperientzia barrixak

Presentaziñua egitteko, herri kirolen gaiñeko esperientzia eskintzen daben Mallabiko Zelai landetxia aukeratu eben eta bertan izan ziran Juan Angel Balbas Debegesako zuzendarixa, Cristina Iturriagagoitia Debegesako turismo arduraduna, Jose Antonio Gisasola "Zelai" harrijasotzaillia, Idoia Zenikazelaia emaztia, Itziarko Txindurri Iturri Sagardotegi-Landetxeko Alazne Iturri eta Aritz Etxebarri, Ibon Arakistain Aspe Pelota enpresako komunikaziño arduraduna eta Mireia Alonso Krabelin hotel-jatetxeko ugazaba. Gaiñera, presentaziñua amaittuta 16 aldiz Euskadiko txapeldun izan dan Zelai harrijasotzailliak, Jon semiak eta Ioritz illobak lagunduta erakustaldixa eskindu eban programaren barri izateko gerturatu ziran guztien aurrian.

Presentaziñuan esandakuaren arabera, *"programa honekin bisitarixak Debabarrenera erakartzeko alternatiba barrixa eskindu nahi dogu. Ekimena batez be esperientzia diferentiak ezagutu eta bizi nahi dabeneri zuzenduta dago, hau da, kalidadezko turismua modu berezixan bizi nahi dabeneri. Izan be, gure eskualdiak badakaz bestiengandik bereizteko nahikua elementu eta ezaugarri"*.

**Bost arlotan protagonista**

Eskintza bakotxari banaka begiratzen ipiñitta, herri kiro-


Juan Gisasola, 5 -EIBAR-
943 20 39 59
www.linkidiomas.com
LINK IDIOMAS
– INGELESA
– FRANTSESA
– ALEMANA
UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT
TALDE MUGATUAK
BAKOITZARI EGOKITUA
ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA
CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA.
MAILA GUZTIAK
Cambridge ESOL Exam Preparation Centre

Munduko kaferik onenak...
...toki guztietakoak eta aromatizatuak...
...ehotu eta potetan berehala sartutakoak
Te jatorrizko eta aromatikoak...
Txokolateak eta bonboiak...
Zatoz dastatzera! Zure zain gaituzu!
Tel. 943-257536
KATETXO
J. Etxeberria, 5
TE, KAFE ETA TXOKOLATE
Informazioa eta eskaerak:
katetxo@yahoo.com
FACEBOOK-en gaude
detaile originalak aurkituko dituzu eztei, urtebetetze, Gabonetako otar eta opariak...

leri eskindutakua Mallabiko Zelai Landetxian eskintzen dabe Idoia Zenikazelaiak eta Jose Antonio Gisasola "Zelai" harrijasotzailliak. Harrijasotzailliak gidatuta, parte hartzen dabenak bere burua euskal kirolari baten antzera sentitzeko aukeria eukiko dau, modalidate ezbardiñetako herri kirolak probauta. Besteak beste, harri jasotzia, aizkolaritza, txinga eruatia, trontzarekin mozketia, lasto altxatzia… praktikatzeko aukeria eukiko dau eta, gaiñera, materixalak zelan fabrikatzen diran ikasiko dau, herri kiroleri lotutako beste hamaika konturen barri jasotziarekin batera.

Euskal pelotari eskindutakuaren asmua, bisitarixa pelota munduan bete-betian sartzia da eta horretarako, Astelena frontoian pelotari profesional bat eukiko dau irakasle. Kantxan Jon Apezetxea pelotarixak lagunduta materixalak probatzen juango dira eta, bisita biribiltzeko, Aspeko kide baten ahotik pelotiari lotutako anekdota eta bitxikerixak ezagutuko dittu.

Laugarren esperientzia aukeratzen dabenak egun batez alkarte gastronomiko bateko bazkide izateko aukeria eukiko dau Mutrikuko Arku-Gai alkartian eta, holan, soziedadietako girua zuzenian bizitzeko modua eukiko dau.

Sagardaua eta euskal basarrixa ezagutzera emoteko esperientzia Itziarko Txindurri Iturri Sagardotegixan garatuko da: txotx-aren errituala bertatik bertara ezagutu eta praktikatzeko aukera izango dabe parte hartzera animatzen diranak eta, zelan ez, kupeletatik etaratzen dan sagardauarekin gozatuko dabe, sagardo ezbardiñak txorizuarekin lagunduta probauta. Gaiñera, sagardoa kortxoztatzen eta botilaratzen ikasiko dabe. Horrekin batera sagardaua kortxoztatzen eta botilaratzen ikasiko dabe.

"Euskal sukaldaritza: basarritik mahaira" izenburukua Arrateko Krabeliñen eskinduko dabe. Parte hartzen dabenak euskal sukaldaritzaren sekretuak ezagutuko dittue Jon Ander Odriozola sukaldarixaren eskutik. Gaiñera Gisasola basarrira bisitan juango dira eta Aitor Gisasolak basarriko biharrak gerturatuko detsez: behixak jaitsi eta oilluak errundako arrautzak bildu eta gero, baratzetik zuzenian hartutako produktu natural eta freskuak erabillitta Krabeliñeko sukaldarixak preparauko detsen menuarekin gozatzeko aukera paregabia eukiko dabe.



*Aurkezpen ekitaldiko talde argazkixa, Mallabiko Zelai landetxian.*

Aurkezpen ekitaldixan parte hartu eban Krabeliñeko Mireia Alonsok azaldu deskunez, *"Cristina Iturriagagoitiaren eskutik aillegau jaku ekimenian parte hartzeko aukeria eta bat egittia erabagi genduan. Izan be, esperientziak planteatzen dabenak bete-betian bat egitten dau gure betiko filosofixarekin. Geure etxian betidanik emon detsagu garrantzi berezixa janarixari, jaten doguna gara eta ahal dala, gure inguruan daguazen produktuak, sasoian sasoikua jatia oso inportantia dala pentsatzen dogu. Horregaitik, esperientzia honekin ez eze bestela be, jendiari zer jaten daben azaltzen ahalegintzen gara, holan produktuak aurrera etaratzeko atzetik daguan biharra, kalidadia eta bestelako guztiak ezagutu eta baloratzen ikasi deixen. Eta holan jardutia bereziki interesantia da umien kasuan, izan be eurak dira etorkizuna eta txikitatik janarixaren inguruko heziketa egokixa jasotzen badabe, nagusitzian be ganoraz elikatzen jakingo dabe".*







## MIREN GISASOLA (kofradiako kidea)

# “Gu amabirjiñaz arduratu ezean, ez litzateke prozesiorik egingo”


F. MORQUECHO

*Arrateko santutegian urte osoa ematen duen amabirjiña elizatik kanpora, prozesioan ikusteko aukera oso egun zehatzetan baino ez da izaten: lehena, jakina, domekan izango da, Arrate egunean meza nagusia amaitu eta jarraian gurutzeraino egiten duten kalejiran; eta bigarrena hilaren 15ean ospatuko den baserritar eta kofradiaren eguneko prozesioan. Horrelakoetan amabirjiña batetik bestera eramaten duten anderoak Arrateko Kofradiako kideak dira. Baina iaz kofradiako eguneko prozesioan orain arte ikusi bariko zerbaitek askoren arreta erakarri zuen: amabirjiñaren irudiari eusten ibili ziren anderoak ohi baino askoz ere gazteagoak ziren eta, gainera, lauak emakumeak. Miren Gisasolak azaldu dizkigu aurten errepikatuko den aldaketaren nondik norakoak.*

***- Zelan sortu zen zuek amabirjiña prozesioan ateratzeko aukera?***

Horren ardura betidanik kofradiako gizonek izan dute, baina guk umetatik lagundu diegu prozesioaren inguruko kontu guztiak prestatzen eta prozesioetan ere izan gara aurretik parte hartzen, anderoen aldamenean kandelak eta lazoak eramaten. Txikitatik bizi izan ditugu amabirjiñaren inguruko ospakizunak eta horien inguruko beste guztiak, giro horretan hazi gara eta gustora egiten ditugu horrelako beharrak. Prozesioaren aurretik dena prestatzeko beharrean geundela, amabirjiña eliza barruko bere txokotik ateratzean uste baino pisu gutxiago zuela ikusi eta lau neskak gainean eramateko moduan geundela konturatu ginen. Horregatik, anderoetako asko urteetan aurrera doazenez, eta guk zamari eusteko arazorik ez genuela ikusita, kofradia egunean guk eramatea erabaki genuen. Gainera, egun horretako ibilbidea Arrate egunekoa baino laburragoa izaten denez, ondo moldatuko ginela begitandu zitzaigun eta hala animatu ginen Akondia baserriko Mari Jose eta hiru ahizpak, Ane Miren, Jaione eta ni neu.

***- Arrateko ama ezagutzen ez duen eibartarrik ez da izango, baina askok ez dute jakingo amabirjiñak kofradia duela. Nortzuk osatzen dute kofradia eta zeintzuk dira bere zeregin nagusiak?***

Arraten eta inguruan bizi diren baserritarrek osatutako kofradia da eta bertako kideek amabirjiña bera zein bere inguruko beste kontu guztiak zaintzen arduratzen dira. Amabirjiña prozesioan atera baino lehen jantzi egiten dugu, apaindu, diamantezko koroa ipini, kandelak, lazoak eta bestelako guztiak ipinita apaindu…. Amabirjiñak esanahi haundixa daka ikustera joaten diren guztientzat, baina kofradiako kideek egiten duten beharra egin ezean, inork ardura hori hartu ezean, ospakizunak eta amabirjiña bera desagertu egingo lirateke.

***- Jaietan ardura handiko beharra egiten duzue, baina gazteak ere bazarete. Nola bizi dituzue jaiak?***

Gazteak garen aldetik, besteen moduan bezperako gauean parrandan ibiltzea gustatzen zaigu, baina horrela ibilita ere badakigu hurrengo egunean ardura bat daukagula eta, lo gutxi eginda ere, han izango garela. Gainera pozik betetzen dugun lana da, guretzat Arrateko amaren inguruko guztiek oso esanahi berezia dutelako.

***- Eta nolakoa izan zen iazko esperientzia? Nola bizi zenuten prozesioa amabirjiña zuek eramanda?***

Prozesioaren inguruan egoten den giroa oso berezia izaten da, amabirjiña pasatzen joaten den neurrian jendea ixil ixilik nola geratzen den ikustea, zenbat maite duten sentitzea… Eta iazkoa, gu andero ginela, are bereziagoa izan zen. Guk umetatik bizi izan dugu giro hori eta iaz harrotasun handiarekin atera genuen amabirjiña, ardura hori guretzat ohore handia delako.






# Cobra, Kaotiko eta Anai Arrebak gauari musika ipintzen


Cobra


Kaotiko

Jaixak Herrixak Herrixandakok, Ernai, Urbat, Sortu, Herrira, Eibar Rugbi Taldea, Atakapa eta Bizimina elkarteen laguntzarekin, Arrateko jaien inguruko egitaraua antolatutako egitarauari bihar bertan, Arrate egunaren bezperan ekingo diote: 11.00etan Arratera igotzeko hitzordua ipini dute (Eibarko Bizikleta Plazatik, "Galerosetik" abiatuta); 13.00etan trikipoteoa hasiko da eta, ondoren, 15.00etarako herri bazkaria antolatu dute.

Eta 23.00ak aldera, urteroko moduan, bezperako gaua girotzeko kontzertuak hasiko dira. Aurtengo kartelak Cobra, Kaotiko eta Anai Arrebak taldeak batuko ditu Arrateko zelaian. Cobra David Gonzalezek (Berri Txarrak eta TT L T) eta Josu Luengok (Evirus 69) 2006an osatu zuten rock/metal taldea herrikoa izanik, Cobraren musika aski ezaguna da eibartar askorentzat. Sarritan "Thriller rock"' estiloari lotuta aurkezten duten taldearen abestiek zinema zein telesailen eragin handia dute. Album bi kaleratu ditu Cobrak, lehena 2007an eta bigarrena 2012an. Zuzeneko bikaina duen taldearen musikan askok Black Sabbath, Soundgarden edo Mastodon moduko taldeen eragina ikusten dute, baina bere musika ezagutu nahi duenak egin dezakeen onena Arratera igo eta berak erabakitzea da.


Anai Arrebak

Eszenatoki berean lan berria kaleratu duen Anai Arrebak taldeak jardungo du, rock dantzagarria jotzearekin batera doinu horiek ere antzeztuta. Eta kartela biribiltzen, Kaotiko taldeak "EH Calling" (Baga Biga Musika Ideiak) disko berria aurkeztuko du Arraten.

Eta kontzertuak amaituta oraindik parrandarako gogoa duenak horretarako aukera paregabea izango du goizaldeko 04.00etan hasiko diren jolasei esker. Eta Arrate egunerako presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea deitu dute (12.00etan zelaian).

---



## JOSE LUIS ITURBE ARRETXEA

*2013ko abuztuaren 21ean*
*hil zen, 62 urterekin*



**Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA**
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

---

## Jose Luis Vilanova Alvarez "RUBIO"

*(1. urteurrena: 2012-VIII-1)*

*"Samindurik dugu bihotza,*
*baina zure oroimenak indartzen gaitu;*
*ez agurrik, ez adiorik,*
*GERO ARTE baizik".*

**KUADRILLAKO LAGUNAK**



# Lujanbio, Egaña, Lizaso eta Zubeldia kantari Kantabrian



*Betiko Lizasok eta Egañak lagun berriak izango dituzte.* Leire Iturbe

Aurten ere Arrate egunaren bezperako bertso-afariak lagun bat baino gehiago laga ditu bertara joan ezinik. Uztail erdialdean txartelak salgai ipini eta abuzturako agortzen direlako: bada oporretatik bueltan bila ibili dena, baina zaila du oso halakoak eskuratzerik sasoi honetan. Kantabrian bertan esan digute *"aurten ere demanda handia"* izan dutela. Jatetxeak ezin du gehiagorako eman, gehienez jota ere 220 bat lagun sartzen baitira eta badakite tokia ondo aprobetxatzen.

1993an sortutako tradizioak 21. edizioa betetzen du aurten. Orduko hartakoan, Juan Mari Narbaiza eibartarrarekin batera, Peñagarikano izan zen: jakina, urtero-urtero kale egin ez duten Lizaso eta Egañarekin batera. Aurten, bestalde, aipatutako biekin Maialen Lujanbio txapelduna (hemendik gutxira ipiniko du jokoan txapel hori) eta Iker Zubeldia zegamarra izango dira. Azken aldian plaza asko egiten diharduen Zubeldiaren debuta izango da Arraten.


*Jendeak asko gozatzen du afari ondorenarekin.* Leire Iturbe

## Izatezko bikotea Arraten

Hori osatzen du dagoeneko aipatutako Egaña-Lizaso tandem-ak eta, eurekin batera, Arrate bezperako bertso-jaialdian Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Maialen Lujanbio, Angel Mari Peñagarikano, Amets Arzallus eta Sustrai Kolina dira gure artean gehien izan direnak. Gai-jartzaileen artean ere, Asier Ibaibarriagak bosgarren urtea beteko du aurten, Rafael Zubizarretaren lekukoa hartu eta gero. Berak gidatuko duen saioari gatz eta piper guztia ateratzen saiatuko dira bertsolariok, hain ospetsu eta ohiko bihurtu diren "segidilla" eta antzerakoekin. Ordurako sabela ondo beteta izango duten ikus-entzule guztien gozamenerako izan dadila! Erretzearen debekuak eta halakoak estualdian jarri arren bertsolari bat edo beste eta, eszenategia lagata, airea hartzera (kea botatzera) irten behar badu ere.



*Iker Zubeldia zegamarraren debuta izango da Arraten.*

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

EMAKUME ETA GIZON MODA
Valenciaga
KONFEKZIOAK
merkalitatea
☎ 943 20 22 33
Zuloagatarren, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
• Koroak • Eskelak • Hilarriak • Agiriak
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

K21
MUGICA
ITURGINTZA
Aire egokitua, iturgintza,
gasaren instalazioa, kalefakzioa,
petrolio-produktuak, bainuen
erreformak eta abar...
**Hansgrohe** kanilen banatzailea
Zoru erradiatzailea
Eguzki-energia

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

# Inoiz baino gehiago…



SILBIA HERNANDEZ



Inoiz baino sari gehiago daude aurten Arratietako Kittonbolan, eta hasieratik egin dogun moduan euro baten truke. **10 urte betetzen ditu aurten kittonbolak** eta hasieratik ipinitako preziuari eustiaz gain hasierako ilusioari ere eutsi diogu, urtetik urtera parte hartzaile eta opari kopurua handitzen saiatu gara, nahiz eta gaur egungo egoera duela urte batzuetakoa ez den…

**Inoiz baino sari gehiago ditugu baina inoiz baino gehiago behar dugu aurten herritarron laguntza.** Gogorrak izaten dihardute azkenengo urte hauek, baina momento honetako egoera gogorra edo zaila baino ia jasangaitza dela esan behar dugu , egoera ekonomikoa larria da, dirulaguntzen jaitsiera izateaz gain, publizitatea eta bestelako lanak (hitzaldiak, itzulpenak…) ere asko jaitsi direlako. Elkartearen jarraikortasuna kolokan jartzen den une honetan zuengana jotzen dugu kittonbola moduko ekimenetan parte har dezazuen eskatzeko. Kittonbolan lortutako dirua ezinbestekoa delako urteko programa betetzeko. **Zuek Kittonbolan gastatzen dituzuen diruak, gero guk Eibarren euskara bultzatzeko erabiltzen dugulako.**



### SARI OSO PRAKTIKOAK

Apirilaz geroztik dihardugu sariak jasotzen eta domekan ia 6.000 sari izango ditugu kittonbolan banatzeko prest. Krisia gizarteko sektore guztietara ailegatu da eta sariak jasotzeko orduan ere igarri dugu. Enpresa askok, bizi duten egoera larria dela eta ezin izan dute Kittonbolan parte hartu. Hala ere, inoiz baino sari gehiago ditugu, parte hartu dutenek egindako esfortzua handiagoa baita. Gure asmoa beti izan da sari kopurua ahalik eta handiena izatea, 'jarraittu jokuan' izeneko boletoak ahalik eta gutxien izatea. Eta aurten ere lortu dugu. **Gainera, aurtengo sariak bereziki praktikoak izango direlakoan gaude.** Ikusiko duzuenez, jatekoa edo erregaia debalde lortzeko baleak lortu ditugu, besteak beste, benetan be sari interesgarriak.

### 10.00-ETAN ZABALIK

Goizeko 6etatik aurrera izaten da ...eta kitto!ko lehenengo lantaldea Kittonbolan, aurreko egunetan ere hor izango gara. Arratera ailegatu eta berehala igartzen dugu jendeak Kittonbolia noiz zabalduko den galdetzen digute-eta. Jendeari gustatzen zaiola badakigu eta zueri boletoak saltzen hasteko desiatzen egongo gara. Urtero legez goizeko 10.00-etan zabalduko dugu eta sari guztiak ia lehenbailehen banatzen ditugun, seinale ona izango da-eta.

Eta aurtengoan, lehen esan dugun moduan, sari asko dugu. Urtero bezala, sariak momentuan jaso beharko dira. **Hor duzue zuen zain opari mordoa: tablet-a, nintendoak, bizikletak, afariak, txuletak, legatza, rapea, langostinoak, jamoia, etxerako tresnak, jantziak, edertasuna tratamenduak, kamisetak, edariak, erosketa baleak eta abar luzea.**

# KiTTONbolia

...eta kitto! Euskara Elkartea

***Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera asko izango dituzue. Eskerrik asko parte hartu duten denda eta enpresa guztiei!!!***

- **Alzolako Urak**
- **Amaña gasolindegia**
- **Ansa bitxitegia**
- **Arregi-Dominguez arraindegia**
- **Artola jatetxea**
- **Askasibar**
- **Aspe**
- **Astelena taberna**
- **Astigarraga**
- **Athletic club**
- **Azitain erretegia**
- **Azitain gasolindegia**
- **Azpiri jostundegia**
- **Azpiri saneamenduak**
- **Baglietto**
- **Benicoba**
- **Blanca loradenda**
- **Burbujas y mas**
- **Capi**
- **Coca Cola - Norbega**
- **Depor taberna**
- **Dirdai bitxitegia**
- **Ditare**
- **e&m argazkidenda**
- **Egaña elektrodomestikoak**
- **Eguren elektrodomestikoak**
- **Eibar Eskubaloia**
- **Eibar Futbol Taldea**
- **Eibar Motor**
- **Eibar outlet**
- **Eibar Rugby Taldea**
- **Eibarbus**
- **Eibarko Txirrindulari Elkartea**
- **Eibarko Udala**
- **El Cantón de la Avenida**
- **El Corte Inglés**
- **Emankor**
- **En Boga ileapaindegia**
- **Eroski Eibar**
- **Errebal Kirolak**
- **Eslune**
- **Esteban Oroz**
- **Farmalur**
- **Garbibox**
- **Genoveva arraindegia**

**Inoiz baino gehiago behar dugu I**

# Eskerrik asko parte hartu duzuen danori!

- Gerritek

Gerritek INFORMATIKA

- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Guillermo arraindegia
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusi-makusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi
- Iñaki del Rey
- Irritsa

Irritsa

- Itxesi
- Izadi loradenda
- Jauregi
- Jaz-Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kantoi gasolindegia
- Kareaga
- Katetxo
- Kerala
- Ketesa
- Kokein
- Krabelin
- Kultu taberna
- Laboral Kutxa
- Lakett
- La Tahona
- Laumar loradenda
- Leder
- Lide
- Lola’s
- Luis del Rey
- Mamacas
- Mara-mara
- Marian-Idoia spa
- + q wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mujika harategia
- Natural
- Neure
- Oberena harategia
- Otegi harategia
- Pirritx eta Porrotx

Pirritx eta Porrotx

- Pitxiak
- Publiresa
- Quetzal
- Sabores
- Salaberria bitxitegia
- Selene
- Su Ta Gar
- Talleres Aibe
- Tiro Pichon jatetxea
- Tribeka
- Txutxufletas
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Ustekabe
- Vinos Solera Eibarresa

VINOS SOLERA EIBARRESA

- Valenciaga
- Zurkulu

**Kittonbolan parte hartzea... Zatoz!**

# Arrateko Amaren Jaixak 2013

## Iraillak 7, ARRATE BEZPERIA

**13.00.-** HERRI KIROLAK.

**18.00.-** MEZIA Arrateko Santutegixan eta, ondoren, SALBEA. Jarraixan, TXUPINAZUA eta kanpai-errepika.

**21.00.-** BERTSO AFARIXA: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia. Gaijartzaillia: Asier Ibaibarriaga. Kantabria jatetxian. Antolatzaillia: ... eta kitto! Euskara Elkartea.

**23.00.-** Rock KONTZERTUA, txosnen eskutik: Cabra, Kaotiko eta Anai Arrebak.


Dantza-solte txapelketian aurrez gonbidapena jasotako 10 bikotek jardungo dabe.


Drindots-ek dantzaldixa eskinduko dau domeka arratsaldian.


Arrateko Amaren Dantzak aurkeztuko dittu Kezkak.

## Iraillak 8, ARRATE EGUNA

**10.00.-** Azittaingo surtidoretik urten eta Arratera IGOERIA, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaua banatuko dittue Zesteroko itturrixan Jai Batzordiak antolatuta.

**10.00.-** KITTONBOLIA!

**10.30.-** KALEJIRIA Eibarko Usartza Txistulari taldiaren eskutik.

**11.00.-** MEZA Nagusixa Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren EZPATA-DANTZIA egingo dabe. Ondoren, Arrateko Amaren PROZESIÑUA, Usartza Txistulari taldiak, Jainaga eta Narbaiza trikitilarixak, Kezka Dantza Taldiak, bertsolarixak eta agintarixak lagunduta.

**12.30.-** Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak ARRATEKO AMAREN DANTZAK aurkeztuko dittue zelaixan.

**13.30.-** TRIKITILARI ETA BERTSOLARIXEN saiua.

**17.00.-** BERTSOLARIXEN SAIUA.

**17.00.-** Arrateko Amaren HIRU TXIRLO Sarixa. Antolatzaillia: Asola Berri alkartia.

**17.30/20.30.-**.- Bete zaitez... baina emozioz! Alkoholaren inguruko kanpaiña informatzaille eta hezitzaillia. Sasoia alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebenziñorako alkartiak) ALKOHOLEMIA KONTROLAK egingo dittu. Antolatzailliak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikuaren eta mendekotasunen Zuzendaritza.

**17.30.-** DANTZA SOLTE TXAPELKETIA. 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidauta (bost 15 urtetik gorakuak eta beste bost 15 urtetik beherakuak).

**18.30/21.00.-**.- DANTZALDIXA Drindots taldiarekin. Jarraixan, kontzertua.

## Jaixak Herrixak Herrixandako
## (laguntzailliak: Emai, Urbat, Sortu, Herrira, Eibar Rugbi Taldea, Atakapa eta Bizimina)

## Iraillak 7, Arrate bezperia

**11.00.-** Arratera IGOERIA, Eibarko Bizikleta Plazatik ("Galerosetik") urtenda.

**13.00.-** TRIKIPOTEUA.

**15.00.-** HERRI-BAZKARIXA.

**23.00.-** KONTZERTUAK: Cobra, Kaotiko eta Anai Arrebak.

**04.00.-** JOLASAK.

## Iraillak 8, Arrate Eguna

**12.00.-** PRESUEN eskubidien aldeko ALKARRATARATZIA.

## Iraillak 15, KOFRADIXA EGUNA eta basarrittar jubilauen eguna

**10.30.-** Simón Aldazabal XVIII. ANTXITXIKETALDIXA. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik).

**11.00.-** MEZA NAGUSIXA bertsolarixekin eta Arrateko ezpata-dantzarixekin. Ondoren, prozesiñua Usartza Txistulari Bandak lagunduta.

**12.00.-** PAELLA LEHIAKETIA.

**14.00.-** Paella lehiaketako irabazlieri SARIXAK BANATZIA.

**14.30.-** JUBILAUENDAKO BAZKARIXA, Krabelin jatetxian. Basarrittar nagusixeri oparixak banatuko detsez. Trikitilari eta bertsolarixekin.

**17.30.-** IDI PROBAK.

**ARRATE IZENEKUEN** jaixaren XVI. URTEURRENA
Arratera igoeria Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik, mezia, bazkarixa, jolasak eta dantzaldixa.

## Arrate egunaren inguruko mezak

– **ZAPATUAN (ARRATE BEZPERAN):** 18.00.- Salbea.
– **DOMEKAN (ARRATE EGUNEAN):** 09.30etan, 11.00etan (meza nagusia eta prozesioa), 13.00ean eta 18.00etan.
– **KOFRADIA EGUNEAN (IRAILAK 15):**
11.00.- Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.

## Autobus zerbitzua

**PREZIOA 2 euro**

– **ARRATE BEZPERAN**, Arratera igotzeko autobusak egongo dira gaueko 20.00etan, 21.00etan eta 22.00etan (Ego-Gainetik).
– **ARRATE EGUNEAN**, Eibarrera jaisteko autobusak egongo dira goizaldeko 03.00etan, 04.00etan, 05.00etan, 06.00etan, 07.00etan eta 08.00etan. Arratera igotzeko autobusak, berriz, Toribio Etxebarriatik irtengo dira 09.00etatik aurrera, bete ahala. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira autobusak. Jaisteko azkena 21.00etan irtengo da Arratetik.
– **KOFRADIA EGUNEAN** (hilaren 15ean), zerbitzu berezia egongo da -dena dela, datorren astean zehaztuko dugu ordutegia-.

## Telefono jakingarriak

**LARRIALDIAK.**– SOS Deiak: 112. Gurutze Gorria: 943222222. DYA: 943464622. DYA anbulantziak: 943208480.
**OSASUN ZENTROAK.**– Larrialdiak: 943461111 /943440633. Erdialdeko anbulategia: 943032500. Torrekuako anbulategia: 943032650. Mendaroko ospitala: 943032800.
**BESTEAK.**– Suhiltzaileak: 112/943202328. Udaltzaingoa: 092 / 943708424. Ertzaintza: 943204080.
**GARRAIOAK.**–
Untzagako taxiak: 943203071.
Anbulategiko taxiak: 943201325.
Eusko Trenbideak: 902543210 / 943120546.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



## Abanzabalegi eta Alberdi bueltan dira errugbian

**Hainbat aldaketa izango ditu Eibar Rugbiak lehenengo taldean**, euren artean Ibon Ganzarain entrenatzailearena, Gorka Nuñez orain arte Ordizia Rugbi Taldearen eta saskibaloiko Caja Laboralaren prestatzaile fisikoarekin etorriko dena. Jokalariei dagokienez, Urtzi Abanzabalegi eta Iñaki Alberdi eibartarrak taldera itzuliko dira eta Vigon jardundako Ion Arrizabalagak taldean jarraituko du. Iñaki Arrizabalaga da presidente berria eta bihar Unben aurkeztuko da taldea, Ohorezko mailako Hernaniren aurkako partiduan.



*Iñaki Arrizabalaga presidente berria, Jon Egiguren orain arteko presidentea eta Urtzi Abanzabalegi jokalaria.*

## Urki-Amañako Javier Sotos karateka bikain azken torneoetan

**Denboraldi bikaina dihardu egiten alebin mailako karatekak** eta, horrela, eskola-kiroleko 3-4 zonaldetako eskualdeko txapelduna izateaz gain, hirugarrena izan zen bai Hondarribian jokatutako Gabonetako jaialdian eta baita Donostian egindako Udaberriko txapelketan ere. Aipatutako eskualdeko txapelketan, hirugarrenak izan ziren Aner Gisasola (alebinetan) eta Ibai Iriondo (benjaminetan).







*Mutrikuko torneoan parte hartu zutenak talde argazkian.*

## Waterpolisten gozamena Mutrikun eta A Coruñan

**Mutrikuko nazioarteko txapelketaren 3. edizioa bikaina** izan zen eta Sant Andreuko kataluniarrak onenak izan ziren, bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan. Oso deigarriak izan ziren gizonezkoen arteko finalerdiak (Askartzako Txipi Team, Madrilgo 4klasicc selekzioa, Italiako Pro Secco eta kataluniarrak) eta, emakumeek irabazitakoarekin, Urrezko Balea bereganatu zuten. Jarraian A Coruñako naioarteko torneoan izan ziren Urbat Urkotronikoak eta han podiumetik gertu geratu ziren, 5. postuan.

## Bihar aurkeztuko da Concepto Egile Olaizaga kiroldegian

**Azken denboraldian nahiko meritu egin eta gero**, diru-kontuak direla-eta gure eskualdeko areto-foballeko talde nagusiak muzin egin behar izan zion maila igotzeari. Hala ere, taldetik joandako jokalariak ordezkatzeko lanean jardun dute agintariak eta talde polita osatu dute berriro: horrela, Xabier Perez etorri da Sabadelletik, Rafael Berlanga Marfil Santa Colomatik, Javier Azkoiti Zalatamborretik eta Iraitz Olasagasti Triman Xotatik. Bihar aurkeztuko da taldea zaleen aurrean, 19.00etan hasita, Bestalde, hurrengo denboraldian Peñiscolarekin jokatuko duen Buitre (25 gol Debabarrenarekin) azken denboraldiko jokalari onena izendatu zuten.





Tintalur
Kartutxo eta Toner Birziklaia eta Salmenta
Errebal, 12 - behea
Tel./Faxa: 943 531 809
tintalur@gmail.com www.tintalur.com

iTURRi
ARDOAK
ETXERA ERAMATEN DUGU
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

## Liga eta Kopa Eibar FT-rentzat lau egunetan

**Partidu biak Ipuruan izango ditu, zorionez partidu bakarreko Kopako** kanporaketa aurten etxean jokatzea egokitu baitzaio Garitanoren taldeari. Aurretik, baina, Cordobari egingo diote aurre eibartarrek domekan, 18.00-etatik aurrera: andaluziarrek partidurik galdu gabe etorriko dira Ipuruara, baina gorri-urdinek azken 0-3koa ahazteko asmoa dute. Teneriferen aurkako Errege Kopakoa eguaztenean, hilaren 11n, jokatuko da, 19.30etan, eta bazkideek euren sarrerak atera ditzakete Ipuruako bulegoetan eta Untzagako Jubilatuen egoitzan. Prezioak honakoak izango dira: bazkideak, 10 euro (infantilak, 5); eta bazkide ez direnak, 30 (infantilak, 10).



### Prezio berriak

2014 urterako Ipuruarako abonuek gaur egungo prezioei eutsiko badiete ere (langabetuentzako %40ko deskontuak ere jarraituko du), ez da gauza bera gertatuko publikoarentzako sarreren prezioan. Domekako partidutik aurrera, honakoak izango dira Ipuruako prezioak: tribuna printzipala eta Iparrekoa, 30 euro; Gol Ekialdea eta Mendebaldea, 20 euro; eta, 12 urtera arteko umeen kasuan, 10 euro. Sarrerak erosteko, Ipuruako 3. eta 4. txarteldegiak egongo dira zabalik partidua hasi baino ordubete lehenago.

## Euskadiko akuatloian Ziaran bosgarren

**Plentzian jokatutako Euskadiko akuatloi txapelketan**, gure herriko Delteco Triatloi taldeko ordezkariak bosgarren postuan amaitu zuen, Ibone Sanchez irabazlearengandik lau minutu eta erdira. Bihar, bestalde, Zumaiako VII. triatloia jokatuko da eta, horrekin batera, Gipuzkoako triatloi sprint txapelketa; proba 18.15etan hasiko da emakumezkoen mailan eta handik ordu laurden batera gizonezkoen mailan. Horrekin batera, eta bigarren aldiz, super sprint distantziako herri-triatloia jokatuko da.



## berriak

### XAKEA

**Urtero moduan, Deporreko xakelariak uda sasoia ere euren kirola praktikatzeko aprobetxatzen dute. Horrela, Gasteizko 5. nazioartekoan Alex Aranzabalek 18. postuan amaitu zuen eta baita sari bat irabazi ere; torneo berean, Jose Ricardo Gomez Deporreko jokalari-ohiak 41. postuan amaitu zuen. Bretainiako nazioartekoan, bestalde, Jon Aranak horko onenekin jokatzeko aukera izan zuen eta Mikel Larreategi 8.a izan zen B mailako txapelketan.**

### PILOTA

**Klub Deportiboko pilota batzordeko bost bikotek jokatuko dute Gipuzkoako Federazioak antolatutako txapelketan. Datorren asteburuan hasiko den torneoan gazte mailako bikote batek eta helduetako hiruk jardungo dabe, Ohorezko mailakoarekin batera. Azken honetan, Unamunzaga-Arribillagak gogor egin beharko du, Bengoetxea operatu baitute.**






# TEEN AJEAK

**Gure hondartzak urte osoan guk noiz erabiliko zain daude, baina urtero denboraldia ekainean zabaldu eta irailean itxi egiten dute, besteak beste udan aurkitzen ditugun zerbitzuak bakarrik tarte horretan eskaintzen direlako. Horien artean bereziki garrantzitsua da gure segurtasunaz arduratzen diren sorosleek ematen dutena. Uda Debako Gurutze Gorrian beharrean eman duen Nerea Ziaranek azaldu dizkigu lanaren nondik norakoak**



## Nerea Ziaran (UDAN SOROSLE)

# "Igeriketa gustoko izanda, niretzat lan egokia ikusten dut"

***- Aurretik sorosle lanetan jardundakoa zara ala lehen aldia da aurtengoa?***

Lehenengoz dihardut sorosle modura beharrean. Orain arte ez dut aukerarik izan adintxikikoa nintzelako; aurten 18 urte bete ditut eta lanpostua betetzeko aurkeztu eta horretan dihardut, denboraldia datorren astean agurtu arte.

***- Nondik sorosle izateko gogoa?***

Aurreko urteetan ahizpak horretan beharra egin zuen eta, bere esperientzia ondo ezagututa, horretan jarduteko gogoa nuen. Igeriketa eta horrekin lotutako guztiak asko gustatzen zaizkit eta niretzat lan egokia izango zela uste nuen. Sorosle guztiek ez dute zertan igerilari trebeak izan, baina uste dut horrelako beharrean jarduteko oso komenigarria dela igerian ondo moldatzea, batez ere inoiz norbait itsasotik ateratzea egokituz gero norbera uretan ondo moldatzeko.

***- Eta, denboraldia amaitzeko egun batzuk baino falta ez diren honetan, nolako uda izan duzu?***

Orohar nahiko lasaia izan da, ez da aparteko gertakaririk izan eta, jakina, geratzen diren egun hauetan horrelakorik ez izatea espero dut. Batez ere ziztadaren bat jaso dutenek etortzen zaizkigu, zauriak-eta sendatzera. Ia egunero marmokek edo hondar azpiko salbelaren batek ziztatutako norbaiti zauria osatu behar izaten diogu, baina ez dira kontu larriak izaten, minutu gutxitan egiten ditugu horrelakoak. Hortik aparte, lantzean behin zorabioren bat edo besteri aurre egin behar izaten diogu, batez ere bero handia egiten duenean. Oso gustura nabil, hurrengo urtean ere errepikatzeko aukera izatea nahiko nuke.

***- Larrialdiak albo batera lagata, nolakoa da eguneroko beharra zure moduko sorosleentzat?***

Ezer baino lehen, 10.30ak edo 11.00ak aldera txanda bete behar dugun sorosle guztiak postuan batzen gara, dena prestatzeko. Denera hamalau soroslek dihardugu beharrean, zazpi lagunetako talde bitan banatuta. Postuan dena prest dagoenean, hondartza "zabaldu" egiten dugu megafonia bidez. Hortik aurrera hondartza poliki-poliki betetzen joaten da eta guk bertan ematen dugu eguna, batzuk jende artean pasiatzen, beste batzuk dorretik dena kontrolatzen, beste batzuk postuan... Gutariko bakoitzak zeregin guztietan jarduten du, ordu erdiro txandakatzen joaten gara-eta

GATE
English School
LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA
Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

Ketesa 2010
bulego eta kolektibitaterako instalazio osoak eta materiala
altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...
Ke 2010
bulego materiala
enpresetan banatzen dugu
Estaziño kalea, 12
20600 Eibar
tlf. 943121973 / 943121974
fax. 943127068
email. info@ke2010.com

# Jai Zoriontsuak!






Ezkontzak

HOTELA
JATETXEA
Krabelin

Enpresa bazkariak

conecta@hotelkrabelin.com www.hotelkrabelin.com





# Gurasoentzat euskara klaseak erdi prezioan



*Kareaga, Txurruka, Beitia eta Zubizarreta eguazteneko aurkezpenean.* Leire Iturbe

**Hastear dagoen ikasturtean euskara ikasi nahi duten gurasoek** (0-12 urte bitarteko umeen gurasoek) matrikula erdi prezioan izango dute, Udaleko Euskara-Kultura saileko ordezkariek eta euskaltegi bietako zuzendariek eguaztenean aurkeztu zuten kanpainari esker. Euskaldundu nahi duten gurasoek jasoko duten diru-laguntzarekin, normalean 409 euro balio duen matrikula 205 euro ordainduta eskuratuko dute. Aurreko ikasturteetan ere diru-laguntzak jaso dituzte, baina ikasturte honetarako berritasuna dirua matrikula egin eta zuzenean, ikasturte amaierara itxaron barik jasoko dutela da. Gainera, epetan ordaintzeko aukera ere izango dute. Matrikulazioa hilaren 13ra arte egongo da zabalik eta klaseak bakoitzaren mailaren arabera antolatuko dituzte.

Klaseei buruzko informazioa ikastetxeen bitartez helaraziko zaie gurasoei eta izena emateko, umearen irakasleari fitxa entregatu edo, bestela, Euskara-Kultura sailera deitu (943708435, Junkal) daiteke. Informazio gehiago nahi dutenentzat bilera irailaren 10ean egingo dute Portalean, 18.00etan. Euskara maila neurtzeko probak, berriz, hilaren 18an egingo dituzte (Portalean, 17.00etatik 19.00etara).

# Ustekabek Elorrion agurtuko du uda

**Zapatuan Elorrioko jaietan 17.30etatik aurrera eskainiko duen emanaldiarekin** agurtuko du Ustekabe fanfarreak aurtengo uda. Eibartarrak estreinekoz izango dira Elorrioko jaiak girotzen, baina biharkoa ez da uda honetako estreinaldi bakarra izango, Dima eta Mutrikun ere lehenengoz jardun zuten-eta. Aipatutako emanaldiez gain, taldearen udako agendan honezkero finkatuta dauden beste hainbat saio eskaini ditu, besteak beste Ubiden, Eibarren, Ermuan, Castañaresen (Errioxan) eta Bilbon. Bestalde, ikasturte berrirako kontratazioa zabalik dagoela azaldu dute. Interesa duenak telefonoz (649933512), e-mailez (ustekabe@gmail.com) edo www.ustekabe.com webgunean eskaera-orria beteta jar daiteke fanfarrearekin harremanetan. Bestalde, aste honetan jakinarazi dutenez, Ustekabek Arrateko jaietan sagardo kupela ipiniko du, *"eibartarrek zelaian txotx egiteko aukera izan dezaten"*. Goizetik hasita sagardoa, txorizo pintxoak eta gabonetarako rifak ipiniko ditu salgai.




# Kezkako dantzariak Austrian

**Abuztuaren 1etik 4ra bitartean Austrian**, Villach-en ospatu zuten Kirchtag 70. jaialdian parte hartzen izan ziren Kezkakoak, jaiak iraun zuen bitartean hainbat emankizun eskaintzen. Jaialdiaren aitzakiarekin, bidean hainbat hiri bisitatzeko tartea ere hartu zuten. Besteak beste, Nizan, Venezian, Bledeko lakuan (Eslovenia) eta Milanen ondo baino hobeto pasatu zutela begibistakoa da, Eibarrera bueltan taldearen blogean idatzitako kronika irakurri eta erretratoak ikusita.




Iñaki Zugasti

# Markos Untzetaren kontzertua Arrasaten

Arrasateko Kulturate Akustikoa Markos Untzeta eibartarrak zabalduko du, gaur 20.00etan Kulturateko aretoan emango duen kontzertua. Iraileko lehen bi asteburuetan Arrasateko kultur etxeak musika akustikoa ardatz izango duten bost emanaldi hartuko ditu eta sarrera doan izango da. Untzetarekin batera Diouke hirukoteak, Olivenza bikoteak, Valencia Soledad Velezek eta Igelaren Bandak osatzen dute aurtengo zikloko egitaraua.



# Eibarko Kantu Zaleak, kantu aukera berria



*Euskeraz kantatzeko abesbatza berria sortu dute herrian.* L. ITURBE

**Euskal Herriko abestien errepertorioa berreskuratzeko asmoz** eta, batez ere, euskal kantuak indartzeko, talde berria osatu da gure herrian: Eibarko Kantu Zaleak du izena eta astelehenean, hilaren 9an, egingo du lehenengo bilera (eta baita lehenengo entsegua ere), arratsaldeko 19.30etan, San Andres parrokiko lokaletan. Kaleetan Kantuz taldean jardun dutenen artean osatu dute talde berri hori, *"euskal abestien alde egiteko. Kaleetan Kantuzek bost urte egin ditu dagoeneko eta, eurekin oso pozik ibili bagara ere, euskal kantuen alde gehiago egin behar genuelakoan geunden"*. Federatu berri den abesbatzak ateak zabalik ditu abestea gogoko duen edonorentzat: *"Gustatuko litzaiguke gizonak animatzea batez ere. Une honetan hamar lagun gara, baina epe motzera 20-30 bilduko garelakoan gaude. Seriotasuna eta konpromisoa eskaintzen eta eskatzen dugu, ez besterik"*. Maria Jesus Agirreren agindueta jardungo duen koroak "Eibarko Udala euskeraz aurkeztu nahi du" eta, dagoeneko, lotu ditu hainbat kantu kontzentrazio, *"urrian Gernikan izango duguna, esaterako"*. Eibarren hilean behin kantatzeko asmoa dute: *"Kaleetan Kantuzek zapatuan egiten duen moduan, guk barixakuan egiteko asmoa dugu"*.

# The Beatles gogoratzeko egitaraua

**The Beatles sortu zela 50 urte bete direla-eta**, taldeari eskainitako hainbat ekimen hartuko ditu gure herriak irailean, Udalak eta Jai Productions enpresak elkarlanean antolatuta. Irailaren 19an musikan eta The Beatles taldean aditua den Jesus Ordovasek hitzaldia emango du Portalean, 19.30etan hasita. Horrekin batera eta ikastetxeekin elkarlanean, hilaren 24an Yellow Submarine filma emango dute Coliseoan, goizez bakarrik DBH-ko ikasleentzat eta 20.30etan, berriz, pelikula ikusi nahi duten guztientzat (sarrerak 3 eurotan salgai). Emanaldi guztiak jatorrizko hizkuntzan (ingelesez) izango dira, gaztelerazko azpitituluekin lagunduta.



Eta egitaraua biribiltzeko, mundu mailan kontzertuak eskaintzen diharduen The Southts taldea Coliseoan zuzenean ikusteko aukera izango da (irailaren 26an, 20.30etan, sarrerak 20 eurotan salgai). Sarrerak aldez aurretik erosteko aukera izango da astelehenetik aurrera, Coliseoko leihatilan (astelehenetan 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara) eta interneten (www.kutxabank.es).

## laburrak



### ARGAZKI ERAKUSKETAK

**Klub Deportiboko argazkilaritza taldekoek ikasturteko lehen erakusketa sorta prestatu dute: Ambigú tabernan Juan Carlos Pascualen argazkiak ipini dituzte ikusgai, Depor tabernan Juan Mari Ibarzabalenak eta Portalea tabernan, berriz, Eibarko Argazki Rallyko lanak. Hiru erakusketak irailaren 30era arte egongo dira zabalik.**



### NAPOKA IRIA ETB-N

**Zuhaitz Gurrutxagak aurkezten duen "Tumatxak" saiorako hainbat euskal kantu klasikoren bertsioak prestatu eta grabatu ditu Napoka Iriak. Aste honetan, martitzenean egin zuten lehen grabazioa eta emaitza datorren asteko eguaztenean, ETB-1ean emitituko duten lehen saioan ikusteko aukera izango da.**

EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta 20
Tlfno: 943 20 16 69
OBERENA HARATEGIA

## telefono jakingarriak

SOS deiak........................112
Pegora.............................010
Udaletxea..........943 70 84 00
Portalea............943 70 84 39
Udaltzaingoa......943 20 15 25
Mankomunitatea 943 70 07 99
Debegesa..........943 82 01 10
KIUB.................943 20 38 43
Epaitegia...........943 03 34 00
Iberdrola...........901 20 20 20
Naturgas............902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
Gurutze Gorria...943 22 22 22
Mendaro osp......943 03 28 00
Anbulategia.......943 03 25 00
Torrekua...........943 03 26 50
Errepideak.........902 11 20 88
Ertzaintza..........943 53 17 00
Eusko Tren........902 54 32 10
Pesa..................902 10 12 10
Taxiak...............943 20 30 71
.........................943 20 13 25
Alkohol.Anon.....629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Lanegunak (uztailean eta abuztuan): 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR:** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# hildakoak

- **Jon Bergaretxe Areizaga.** 57 urte. 2013-VII-10.
- **Maria Gisasola Ugarteburu.** 86 urte. 2013-VII-11.
- **Mertxe Baglietto Arrizabalaga.** 62 urte. 2013-VII-12.
- **Lucia Aranzabal Etxeberria.** 94 urte. 2013-VII-14.
- **Jon Zinkunegi Alberdi.** 48 urte. 2013-VII-14.
- **Arantza Telleria Iriondo.** 70 urte. 2013-VII-15.
- **Angela Baglietto Arrizabalaga.** 77 urte. 2013-VII-18.
- **Dorita Peñaranda De Pablo.** 81 urte. 2013-VII-21.
- **Miguel Mesas Lopez.** 74 urte. 2013-VII-22.
- **Avelino Fernandez Martinez.** 85 urte. 2013-VII-23.
- **Isidro Egaña Txurruka.** 87 urte. 2013-VII-24.
- **Miren Uzkudun Garitagoitia.** 79 urte. 2013-VII-26.
- **Mª Pilar Aranegi Larrañaga.** 88 urte. 2013-VII-27.
- **Clementino Gutierrez Estebanez.** 75 urte. 2013-VII-28.
- **Santiago Dominguez Rubio.** 84 urte. 2013-VII-28.
- **Enrique Añibarro Ojanguren.** 83 urte. 2013-VII-30.
- **Mª Luz Errasti Ramon.** 81 urte. 2013-VIII-2.
- **Alejandro Guridi Otalora.** 89 urte. 2013-VIII-2.
- **Teodora Aranzabal Aranzeta.** 105 urte. 2013-VIII-3.
- **Isaac Vazquez Martinez.** 69 urte. 2013-VIII-5.
- **Julian Arrizabalaga Mardaras.** 55 urte. 2013-VIII-6.
- **Jose Mª Avila Ruiz.** 90 urte. 2013-VIII-6.
- **Begoña Ganboa Gorostiza.** 83 urte. 2013-VIII-6.
- **Milagros Berraondo Marzo.** 83 urte. 2013-VIII-8.
- **Matea Agirre Belar.** 91 urte. 2013-VIII-11.
- **Angela Ferrero Chimeno.** 58 urte. 2013-VIII-12.
- **Valentina Unzetabarrenetxea Zabala.** 98 urte. 2013-VIII-16.
- **Jose Mujika Garitano.** 77 urte. 2013-VIII-17.
- **Vicenta Bastida Elgea.** 89 urte. 2013-VIII-17.
- **Mª Pilar Dudagoitia Mandaluniz.** 80 urte. 2013-VIII-18.
- **Jose Mª Alkorta Garate.** 59 urte. 2013-VIII-19.
- **Maria Tellez Delgado.** 102 urte. 2013-VIII-19.
- **Isabel Agirre Aginaga.** 88 urte. 2013-VIII-20.
- **Jose Luis Iturbe Arretxea.** 62 urte. 2013-VIII-21.
- **Juanjo Perez Vasalo.** 66 urte. 2013-VIII-21.
- **Jose Luis Miranda Del Moral.** 92 urte. 2013-VIII-23.
- **Felipa Maguregi Amesti.** 86 urte. 2013-VIII-23.
- **Agustina Garitaonandia Urizar.** 93 urte. 2013-VIII-25.
- **Benjamin Fernandez Neila.** 72 urte. 2013-VIII-27.
- **Mercedes Uriarte Magunazelaia.** 82 urte. 2013-VIII-28.
- **Mariano Gutierrez Mesonero.** 64 urte. 2013-VIII-29.
- **Jose Gabilondo Alberdi.** 93 urte. 2013-IX-1.
- **Dolores Aseginolaza Badiola.** 91 urte. 2013-IX-3.
- **Arrate Urizar Irusta.** 82 urte. 2013-IX-4.

# SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 6 | 7 | | 4 | 3 | | |
| | 4 | | | | | | 8 | |
| 3 | | 1 | | | | 2 | | 7 |
| | 7 | | | 8 | | | 6 | |
| | | | 2 | | 1 | | | |
| | 3 | | | 4 | | | 9 | |
| 9 | | 3 | | | | 1 | | 8 |
| | 1 | | | | | | 7 | |
| | | 4 | 6 | | 8 | 5 | | |

AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 1 | 8 | 5 | 3 | 4 | 2 | 9 | 7 |
| 2 | 7 | 9 | 6 | 1 | 8 | 4 | 5 | 3 |
| 3 | 4 | 5 | 2 | 7 | 9 | 1 | 6 | 8 |
| 8 | 5 | 7 | 4 | 2 | 1 | 9 | 3 | 6 |
| 1 | 3 | 6 | 9 | 5 | 7 | 8 | 4 | 2 |
| 4 | 9 | 2 | 3 | 8 | 6 | 5 | 7 | 1 |
| 7 | 8 | 4 | 1 | 9 | 3 | 6 | 2 | 5 |
| 5 | 6 | 3 | 8 | 4 | 2 | 7 | 1 | 9 |
| 9 | 2 | 1 | 7 | 6 | 5 | 3 | 8 | 4 |

# farmaziak

✔ **barixakua 6**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

✔ **zapatua 7**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ *Ibarrondo (Zeharkalea, 2)*

✔ **domeka 8**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✔ **astelehena 9**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✔ **martitzena 10**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✔ **eguaztena 11**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

✔ **eguena 12**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **barixakua 13**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

# jaiotakoak

- **Beñat Lafuente Iturbe.** 2013-VII-6.
- **Iman El Ayadi.** 2013-VII-8.
- **Alaitz Guridi Hernández.** 2013-VII-10.
- **Pablo Andueza Gutiérrez.** 2013-VII-12.
- **Eritz Arriola Oregi.** 2013-VII-12.
- **Ibai Alfayé Sanz.** 2013-VII-15.
- **Josu González Alvarez.** 2013-VII-15.
- **Erick Rodríguez Rodrigues.** 2013-VII-17.
- **Paula Egaña Caño.** 2013-VII-17.
- **Izaro Zuazua Alberdi.** 2013-VII-20.
- **Paula Ayuso Alonso.** 2013-VII-21.
- **Nahia Hijar Herrera.** 2013-VII-24.
- **Amaia Milikua Zalduegi.** 2013-VII-24.
- **Manex Arrieta Arizaga.** 2013-VII-26.
- **Unax Conde Lemos.** 2013-VII-27.
- **Laia Hidalgo Díez.** 2013-VII-28.
- **Lucia Piette Castaño.** 2013-VII-28.
- **Katia Fernández Basabe.** 2013-VII-31.
- **Iria Iglesias Chaos.** 2013-VII-31.
- **Garazi Zabala Lasuen.** 2013-VIII-1.
- **Ilyas Zaid.** 2013-VIII-1.
- **Ibai Román Alonso.** 2013-VIII-2.
- **Aitana Hernández Corchero.** 2013-VIII-2.
- **Mikel Sáez Gil.** 2013-VIII-3.
- **Telmo Azkuenaga Rodríguez.** 2013-VIII-3.
- **Alexandra Maria Ciurar.** 2013-VIII-4.
- **Julen Baqué Garramiola.** 2013-VIII-5.
- **Asser Ali Mohamed Addelnabi.** 2013-VIII-7.
- **Manex Fernández Iglesias.** 2013-VIII-8.
- **Oinatz Askasibar Fernández.** 2013-VIII-9.
- **Mouhamed Ahmad Ghaba.** 2013-VIII-9.
- **Neizan López Egiguren.** 2013-VIII-12.
- **Elene Alkorta González.** 2013-VIII-13.
- **Ghita El Meskini.** 2013-VIII-14.
- **Alain Etxebarria Fernández.** 2013-VIII-21.
- **Izaro Guerrero Garaizabal.** 2013-VIII-22.
- **Nahia Irasuegi Cabral.** 2013-VIII-22.
- **Fatima Tariq.** 2013-VIII-23.
- **Unax Barrenetxea Berasaluze.** 2013-VIII-24.
- **Alain Gonzalez Anton.** 2013-VIII-25.
- **Iker Hernaltes Garcia.** 2013-VIII-26.
- **Izan Movilla Iriondo.** 2013-VIII-26.
- **Maite Quintana Ojanguren.** 2013-VIII-26.
- **Marzia Rico Geraldino.** 2013-VIII-30.
- **Danel Buenaire Lopez.** 2013-VIII-30.
- **Omar Ourdi El Alaqui.** 2013-VIII-30.

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**


Zorionak, ANE Alberdi Carracedo, julixuaren 19xan hamar urte egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat etxeko guztion partez.


Zorionak, DANIELA, abuztuaren 8xan bi urtetxo bete zenduazen-eta. Muxu potolo bat Amaia, Beñat eta Naiaren partez.


Zorionak, MAREN Bastida Solozabal, abuztuaren 29xan urte bi bete zenduazelako. Amama Arantxaren laztan haundi bat.


Zorionak, IRATI, printzesa!!! Abuztuan zortzi urte egin zenduazen-eta! Muxu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, JUNE, abuztuaren 24an zazpi urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat, printzesa, famelixa guztiaren partez.


Zorionak, IRATI, martitzenian lau urte bete zenduazen-eta. Ama, aitta, amama eta osabaren partez.


Ongi etorri, IZARO Guerrero Garaizabal (abuztuko 22xan jaixo ziñan). Famelixaren eta, batez be, Jana eta Ixone lehengusiñen partez.


Zorionak, IXONE Ortiz de Zarate Tprre, bixar urtetxo bat egingo dozu-eta. Famelixaren eta, batez be, Jana zure ahiztaren partez.


Zorionak, UXUE, gaur lau urte betetzen dozuz-eta. Patxito haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, NAIA, astelehenian hiru urte egin zenduazelako. Patxo potolua Eibarko famelixaren eta, batez be, Uxueren partez.


Zorionak, JUNE, julixuaren 24an urtetxua bete zenduan-eta. Besarkada potolua Eibarko famelixaren eta, batez be Uxueren partez.


Zorionak, eta urte askotarako, NAIARA! Abuztuaren 16xan urtiak egin zenduazen-eta. Aitta, ama eta Karenen partez.


Zorionak, INTZA, gaur urtetxua egingo dozu-eta. Aitxa, ama eta etxeko guztion partez.


Ongi etorri, NEIZAN, abuztuaren 12xan jaixo ziñan-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.


Zorionak, MIREN Lage Castro, abuztuaren 9xan zortzi urte egin zenduazen-eta. Famelixaren partez.


Zorionak, JUNE, uztaillaren 20xan bederatzi urte egin zenduazen-eta. Famelixaren partez.


Zorinak, EKAIN! Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, IÑIGO (ekaiñaren 21ian hiru urte egin zenduazen) eta MIREN (uztaillaren 21ian urtebete). Muxu haundi bat famelixaren partez.


Zorionak, ANE eta SARE, abuztuan urtiak egin zenduezen-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.


Ongi etorri abuztuaren 8xan jaixo zan MANEX Fernandez Iglesiasi. Laztan haundi bat aitatxo, amatxo eta, batez be, ALBAren partez.


Zorionak, GARAZI, sorgintxu, abuztuaren 17xan bost urte bete zenduazen-eta. Patxo potolo bat etxekuen eta, batez be, JOKINen partez.


Zorionak, ANE eta ENEKO, zuen 9. eta 7. urtebetetzietan. Patxo haundi bat aittaren eta amaren partez.


Zorionak, aitxitxa ANTONIO eta amama FELISA, bixar 50 urte betetzen dira-eta ezkondu ziñaziela. Primeran ospatuko doguz zuen urrezko ezteiak Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


# 1. Etxebizitza

## 1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko pisua salgai Eibarko erdialdean, Ardantza kalean. Logela bat, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Azkenengo pisua. Terraza handia. Eguzkitsua. Tel. 660-369141 eta 669-731793.
– Pisua salgai garajearekin Donostiako Txofre plazan, Groseko hondartzatik gertu. 2 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, bainua, hall eta trasteroa. Jantzita, bizitzera sartzeko moduan. Aukera ezinhobea. 360.000 euro. Tel. 943-278422 eta 685-916047.
– Etxebizitza salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta trasteroa. 130 m². Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
– Babes Ofizialeko pisua salgai Amañan. 2 logela, 2 komun, trasteroa eta garajea. 70 m². Tel. 636-458967. Ricardo.
– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldea eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.
– Pisua salgai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Altzariekin eta berriztua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Eibarko erdialdean atikoa salgai. Logela bat. 17 m²ko terraza. Guztira 72 m² erabilgarriak. Berria. 220.000 euro. Tel. 647-952677.

## 1.2. Errentan

– Neskak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 679-910991.
– Pisua alokagai Errekatxun. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa. Dena jantzita. Sartzeko moduan. Tel. 659-757572.
– Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela, 2 komun eta terraza. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Leku lasaia eta ondo komunikatua. Sartzeko prest. Tel. 943-201294 / 645-728317.
– Pisua behar da errentan Eibarren. Tel. 657-156254.
– Pisua alokagai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Altzariekin eta berriztua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Urkizun logela biko pisua alokagai. Tel. 675-714404.
– Donostian udarako pisua alokagai. Hilabete osorako edo hamabostaldirako. dena kanpora begira. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 688-604025.

# 3. Lokalak

## 3.1. Salgai

– Kontsulta saltzen dut Untzagako dorreetan. Prezio onean. Aukera ezinhobea. Tel. 943-278422 eta 685-916047.

## 3.2. Errentan

– Garajea alokagai Untzagako parking-aren ondoan. Marraduna. Tel. 658-339709.

# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 606-906729.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta hoteleko kamarera moduan. Tel. 608-474923.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 653-075865.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-532589.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-054894.
– Erizaina eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 699-569998.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Interna. Tel. 649-626975.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 662-012834.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-372936. Julio Cesar.
– Haur-hezkuntza hezitzailea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia haur-eskolan. Tel. 635-201975.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Ordutegi zabala. Tel. 653-075865.
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketetarako. Tel. 632-338445.
– Neska euskalduna eta arduratsua eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 695-719744.
– Mutila eskaintzen da altzariak igo eta jaisteko eta garbiketak egiteko. Tel. 660-213652.
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketetarako. Tel. 617-181350.
– Enpresa-zuzendaritzan eta alor finantzarioan ikasketak egindako mutila eskaintzen da lan egiteko. Tel. 602-566373. Oscar.
– Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko etabar. Tel. 638-884104.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 672-076852.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 632-253170.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 636-362251.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 608-820954.
– Emakumea eskaintzen da gaixoak ospitalean edo nagusiak zaintzeko. Tel. 639-962219.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 627-652870.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 649-086057.
– Erizain laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Esperientzia eta informeak. Tel. 616-607121 eta 943-207183. Marta.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean. Baita gauez ere. Auto propioa eta berehalako disponibilitatea. Tel. 600-005160.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak edo tabernak garbitzeko. Orduka. Erreferentziak. Tel.-679-910991.
– Emakumea eskaintzen da hoteleko kamarera jarduteko, sukaldari-laguntzaile moduan, garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 671-258740.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 617-844142.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-884104.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Prestakuntza eta esperientzia. Erreferentziak. Tel. 628-658538.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 608-147559.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 686-052084.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-332871.

# 5. Irakaskuntza

## 5.2. Eskaintzak

– Unibertsitarioa eskaintzen da ingeles eta ikasketa-teknika klaseak emateko uztailean eta abuztuan. Esperientzia. Tel. 699-522514.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Itzioko DBH 4. mailako liburuak erosiko nituzke. Tel. 618-491604.
– Itzioko DBH 3. mailako liburuak salgai. Tel. 618-491604.
– Gurpildun aulkia salgai. WC-arekin (pixontzia). 125 euro. Tel. 943-120308.
– Bigarren eskuko neoprenoak salgai. Gizonezkoen L tailakoa eta 12-13 urtekoentzako beste batzuk. Tel. 665-726203.

## 6.4. Bestelakoak

– 3 urteko txakurra familia bila. Bodeguero andaluz arrazakoa, txikia eta zuria emango genuke adopzioan. Tel. 660-936862.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

# CAPI

## Gorputz tratamenduak

**TEKNIKAK:** Kabitazioa / Radiofrekuentzia / MINCEUR
Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

**5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa**




## LASER DEPILAZIOA

**30€**

- Aurpegia
- Izterrondoak
- Besapeak
- Bularra
- Sabelaldea ...

**Hanka osoak + Izterrondoak**

**90€**

## Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrekuentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)



## Masajeak

OSTEOPATIA
TEKNIKA METAMORFIKOAK
MASAJE TERAPEUTIKOAK
REFLEXOLOGIA
MASAJEAK: THAI, KALIFORNIARRA, BALIKOA






BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO MANIKURA



emaiozu euskarari

ikasturtea
**13/14**
matrikula zabalik

# Irailaren 2tik 20ra




| HABEren titulu ofizialak | Europako erreferentzia markoa | Administrazioa eta Justizia | Osakidetza | Ertzaintza | Hezkuntza Saila |
|---|---|---|---|---|---|
| **1. maila** | **B1** | **1. HE** | **1. HE** | | |
| **2. maila** | **B2** | **2. HE** | **2. HE** | **1. HE** | **1. HE** |
| **3. maila** | **C1** | **3. HE** | **3. HE** | **2. HE** | **EGA eta 2. HE** |
| **4. maila** | **C2** | **4. HE** | **4. HE** | | |

## ESKAINTZA

- Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak
- 1. eta 2. maila
- 3. maila (EGA) egunero eta astean bitan
- 4. maila astean bitan
- Azterketa prestakuntza maila guztietan
- Titulu ofizialak
- BERRIA!!! Azterketara begirako 3 hilabeteko ikastaro trinkoak (egunean 4 ordu)

## IKASTARO BEREZIAK

- Autoikaskuntza: BOGA programa (tutoretzak eta mintzasaioak)
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (AISA)
- EGAtik gorakoak: sakontze, itzulpengintza, Euskaltzaindiaren arauak...
- Eibarrera
- Mintza-praktika ikastaroak
- Talde bereziak: jubilatuak, gurasoak...
- Ikastaroak enpresetan

**2013-2014 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK**
*Udal Euskaltegian* www.udaleuskaltegiak.net

EibarkoUdalaketaHABEkdiruzlagundutakozentroa (TARIFA BEREZIAK)

Tfnoa: 943 70 09 12
euskaltegiaeibar@telefonica.net Faxa: 943 82 00 89 **Bista Eder 10 -PORTA-**


Islak ez zaitzaila ezkutatu.
mó
betaurreko graduatuak islaren aurkako Beslayt kristalekin
beslayt 67€
ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA
Bidebarrieta 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR
multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan
R.P.S. Nº 149/10 I.L.G.
* Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuekin pilatu.